



## BALIO-PROPOSAMENA

Hau da “**Marinela**” negozio-ideiaren balio-proposamena:

Turistak itsasoarekin eta arrantza kultura tradizionalarekin lotzea da gure helburu nagusia.

“Egun bat ondarrutar erera” gaur egungo globalizazioaren aurrean turismo proposamena edo pakete turistikoa da. Kostaldeko herri baten bizimodu tradizional “ondarrutarra” ezagutuko dute gure bezeroek, baita bizimodu honek iraganarekin duen katea ere. Horretaz gain, bizimodu honek naturarekin duen batasuna ikusiko dute.



Bizimodu horren zutabe nagusia arrantza da. Horregatik, “Marinela-k eskainitako zerbitzua onartuz gero, gure bezeroak arrainen bihurketa-prozesua itsasotik platerera ikusiko dute zuzen-zuzenean. Horrela, kontserba enpresen eta lehen sektorearen funtzionamendua/ekonomia erakutsiko diegu.

Beste hitz batzuetan esanda, Euskal Herriko kostaldeko herri txikien kultura, intrahistoria, ohiturak, lana eta atsedena, ekonomia, jaiak eta egunerokotasuna lehen pertsonan ikusiko eta ikasiko dute. Azken finean, egi hori angelu guztietatik ezagutuko dute.

